

Magufak



June Fernández

KAZETARIA
@marikazetari

Tarot kartak irakurtzen dituen feminista baten artikulua publikatu dugu *Pikara* aldizkarian berriki. Doinu umoretsu batean, bere jardue- ra defendatu gabe, komentatu zuen esoterismoan ere pertsona LGBTB eta queerrak existitzen direla, eta beraz garrantzitsua deritzola astrologian ere heterosexismoaren kontra egiteari. Berehala, iruzkin mordoa jaso dugu, besteak beste: “Feminismoa kakazten duzue zuen magufadekin”. Edota “trol matxistek magufada horiek erabiliko dituzte gure ospe onaren kontra egiteko”.

Baten batek agian ez du ezagutuko “magufo/magufa” hitza. Interneten zabaldu egin dute, “sasi-zientzien” kontra aktibismoan dabiltzaten “eszeptikoek” (kakotxen artean, korronte horrek erabiltzen duen terminologia). Eta zeintzuk dira sasi-zientzia horiek? Mordoa aipatzen dituzte, denak maila berean jarritz: astrologia, homeopatia, ufologia, reflexologia, Bach loreak, akupuntura... Ondorioz, “magufoak” dira zientzian oinarritu ordez “pentsaera magikoan” oinarria daukaten praktikak gustuko dituztenak.

Sumatzen da “magufo” hitzak mesprezu eta iseka kutsua duela. Bi magufo mota daude, eszeptikoen ustez: “Sineskorrak” (horrelako txorakerietan sinesten duten pertsonak) eta “iruzurtiak” (gazteleraz *engañabobos*). Sineskorrak engainatzen dituztenak, etekin ekonomikoa ateratzeko, sendalariak, xamanak, igarleak eta abar dira. Horren arabera, *Pikarako* artikulua idatzitako laguna iruzurtia da, eta, hori dela eta, hedabide serio batek ezin dio horrelako pertsona maltzur bati ahotsik eman.

“Magufo” hitza lehendabizi entzun nuenetik, identitate hori harro onartzea erabaki dut. Bai, egia da, magufa bat naiz eta harro nago. Pertsonen sinesmenak errespetatzen ditudalako;

Diskurtso eszeptikoan patriarkatuaren eta kolonialismoaren aztarna nabariak sumatzen ditut. Alde batetik, paternalismoa: uste dute gu, sineskorrok, tuntunok, salbatu behar gaituztela, iruzurtien kontra egin behar dutela gu engainutik libratzeko. Mendebaldeko medikuntza eta zientzia, logika patriarkalen arabera garatu dira

ibuprofenoa baino senda-landareak nahiago ditudalako; uste dudalako zerbaitek on egiten badizu, berdin duela frogatzen dagoen ala ez. Eta ja-

rrera eszeptiko harropuzak gogaitzen naudelako.

Diskurtso eszeptikoan patriarkatuaren eta kolonialismoaren aztarna nabariak sumatzen ditut. Alde batetik, paternalismoa: uste dute gu, sineskorrok, tuntunok, salbatu behar gaituztela, iruzurtien kontra egin behar dutela gu engainutik libratzeko. Mendebaldeko medikuntza eta zientzia, logika patriarkalen arabera garatu dira. Horren isla bi: emakumeen prozesuen medikalizazioa –hilekoa, haurdunaldia, menopausia–, sexu eta identitate aniztasunaren patologizazioa. Beraz, zientzia hori ez da, inondik inora ere, gustukoaren erlijioa.

Zientzia horiek kulturen aspaldiko sinesmenak mesprezuz alboratzen dituztenean, pentsaera kolonialista ageriarazten dute. Kuban Yoruba erlijioarekin (santeria, alegia) eta Erdialdeko Amerikan Maya herrien sinesmenekin harreman estua izan nuen. Oso aberasgarriak izan zitzaizkidan, baina horiekin identifikatu ala ez, gutxienez, Europatik helduta ondo legoke herri horientzat kolonialismoaren kontrako erresistentzia praktikak bezala ulertzea. Kolonian ere azaldu zidaten gatazka armatuaren emakumezko biktimekin lan egiteko orduan xamanen sendakuntza praktikak oso onuragarriak zirela. Zer axola sasi-zientziak diren ala ez, arimako zauriak sendatzen laguntzen badituzte?

Feminismoan ere badaude “pentsaera magikoa” mehatxutzat jotzen dutenak. Horiei norbaitek erantzun zien, hauxe esanez: “Gaur egun, Erdi Aroan bezala, feminismotik ere, sorginen kontrako kriminalizazioa mantentzen da”. Sorgin garaikideak gustukoak izan ala ez, horiek baino kalte gehiago eragin eta etekin ekonomiko handiagoak ateratzen dituzten maltzur boteretsuak badaude. Esaterako, botika-industria. ■